

Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2012ko otsailaren 23an egindako tailerraren akta



Zaborrak Legazpin: Zenbat sortzen dugu? Zenbat birziklatzen dugu?

Horiek izan dira gaur erantzun ditugun galderak. Gaurkoa Legazpiko Agenda 21eko Foroaren aurtengo bigarren tailerra izan da.

Tailerraren helburua, batez ere, informazioa eskaintzea izan da. Akta honetan labur azalduko dugu nortzuk elkartu garen eta partekatu ditugun datu nagusiak jasoko ditugu.

Tailerraren aurkezpena: gaia, testuingurua eta helburuak

Igor Urrate Legazpiko Udalaren Agenda 21eko zinegotziak ongi-etorria eman die bertaratu direnei eta guztien parte hartzea eskertu du. Segidan, hasiera eman dio tailerrari:

Zergatik proposatu dugu Legazpiko Agenda 21eko Foroaren tailer honetan zaborren gaia lantzea?

Arrazoi asko izan ditugu gaia lantzea interesgarria eta beharrezkoa dela erabakitzeko:

- Gaur egun, konponbidea behar duen arazo larria dugu zaborrekin. Eta Legazpiko Agenda 21eko Foroari datuekin adierazi nahi diogu errealitate hori. Datu horiek Sasieta mankomunitatean dauden datuak dira, bera baita gure udalerriko (eta inguruko beste 21 udalerritako) hiri-hondakin solidoak kudeatzeko ardura duena.
- Datu horietan oinarrituta, Legazpiko Udaleko gobernu taldeak udalerrian atez ateko sistema-bilketa ezartzearen aldeko apustua egitea erabaki du eta erabaki hori zergatik hartu den adierazi nahi diogu Foroari.

Azken finean, hondakinen gaia Agenda 21eko Foroarekin lantzeko bideari hasiera ematea da asmoa. Horretarako, gaurkoan egoera ulertzen eta aurrera egiten lagunduko dizkiguten datuen gaineko informazioa eskainiko da.

Eta segidan, Iñaki Erauskin Sasieta mankomunitateko gerentea aurkeztu digu. Bera izan da gaur egun Legazpin zaborrekin dugun errealitatea islatzen dituzten datuak argi eta garbi azaldu dizkiguna. **Eskerrik asko Iñaki!**

Tailerrean parte hartu dutenak: taldea



Gaur jende askok hartu du tailerrean parte. **50 pertsona inguru** hurbildu gara udaletxekeo batzar aretora. Horrek esan nahi du zaborren gaia interesatzen zaigula, kezka eta egonezina sortzen digula, erakartzen gaituela,...

Eskerrik asko taldeari, eta eskerrik asko zuetako bakoitzari tailerrean parte hartu duzuelako, arretaz entzun duzuelako, iruzkinak eta galderak egin dituzuelako eta hori guztia ikasteko balio izan digulako.

Horrezaz gain, barkamena eskatu nahi dizuegu momentuan pertsona guztien izenak jaso ezin izan ditugulako.

Eric Gálvez • Arantxa Arizmendi • Esther Agirre • Sole Arostegi • Manuel Fernández (Nagusilan) • Maite Zumarraga • M^a Jesús Auzmendi • M^a Luisa Bereziartua • Floren Gutiérrez • Juan Francisco Valbuena • Mailo Pinillos (Ilinti merkatarien elkarte) • Iñigo Alberdi • Agustin Beloki • Montse Vallejo • Izaskun Olaizola • Javier Iraeta (zinegotzia) • M^a Jose Cantero (Nagusilan) • Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • Eugenio Gil (Korosti Zikloturistak) • Jon Villacorta • Oscar Valbuena (zinegotzia) • Pilar Makibar • Igor Goiburu • Cristina Limia • Iker Ugarte • Alberto Lasa • Ander Santesteban • Lurdes Ugarte • Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskola) • Unai De la Presa • Jose Ignacio Gil • Kepa Retolaza • Maite Lonbide • José Luis Cid • Aitor Madina (zinegotzia) • Koldobike Olabide • Junkal Fernández • Juan Karlos Agirre • Xabier Baztarrika (Buskabaso) • Txakel • Mikel Uranga • Marcos Iglesias • Iñaki Erauskin (Sasieta mankomunitatea) • Igor Urrate (zinegotzia) • Kepa Urzelai (Legazpiko Alkatea) • Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) • Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Eta izena jaso ez arren, bertan egon ziren gainerako herritar guztiak. Eskerrik asko zuei ere!

Informazioa eta partekatutako datuak: Zein da zaborren egungo egoera Legazpin?

Zeintzuk izan dira Iñaki Erauskinek eman dizkigun datu nagusiak? Zein da Legazpin zaborren egungo egoeraren argazkia?

Ondorengo koadroan Iñakik¹ eskaini dizkigun datu garrantzitsuenak jaso dira.

OHARRA: Sasieta mankomunitateak prestatzen dituen zerbitzuen gaineko informazioa zehatzago ezagutu nahi duenak Iñakik prestatu duen eta gaurko tailerrean erabili duen powerpointa kontsulta dezake (galdetu Legazpiko Udaleko Agenda 21eko sailean).



Zein da zaborren eta haien kudeatzearen egungo egoera Legazpin?
Hainbat datu:

Zeinen ardura da sortzen ditugun hondakinak kudeatzea?

- Legazpiren eta beste 21 udalerrien kasuan, Sasieta mankomunitatea da horren ardura duena.
- Mankomunitateak prestatzen dituen zerbitzuen artean, honakoak daude:
 - Etxeetako hondakinak biltzea (hondar zatikia)
 - Beira biltzea
 - Ontziak biltzea
 - Arropa biltzea
 - Pilak biltzea
 - Bio-hondakinen gaikako bilketa (Legazpin ez)
 - Azoketako hondakinak biltzea (laster Legazpin ere egingo da)
 - Hildako etxeko animaliak biltzea
 - Industrialdeetan "atez ateko" bilketa (hondakin inerteak, egurra eta papera/kartoia)
 - Egurra biltzea
 - Etxeko altzariak biltzea (egurra, altzariak, hondakin elektrikoak, burdina eta metalak)
 - Etxeko hondakin arriskutsuak biltzea (garbiguneetan)
 - Txatarra biltzea, garbiguneetan
 - Tinta- eta toner-kartutxoak biltzea
 - Sukaldeko olioak biltzea
 - Herri-lorategietako hondakinekin konpost egitea
 - Etxeko hondakinekin konpost egitea
 - Edukiontzia garbitzea eta mantentzea

¹ OHARRA: Esan beharra dago hondakinen sorreraren eta birziklatzearen datuak Sasieta mankomunitate osoarenak direla eta ez Legazpikoak bakarrik.

Zenbat zabor sortzen dugu?

- Ikus dezagun lehenbizi ideia garrantzitsu bat: hondakin asko sortzen dugu eta hori erabat lotuta dago gure bizimoduarekin eta ditugun ohiturekin; gizarte kontsumitzailea gara. Beste hitzetan esanda: zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta hondakin gehiago sortu.
- 2011. urtean, Mankomunitateko biztanle bakoitzak **1,132 hiri-hondakin kilo sortu zituen eguneko** (413,3 kilo urteko), orain dela 5 urte baino % 4,6 gehiago. Krisiak eragina du kontsumoan eta, badirudi, jaitsiera ekarri duela hondakin-sorreran.

Ze hondakin-bolumen biltzen da gaika ondoren birziklitzeko? Eta ondorioz, sortzen dugunetik zenbat doa zabortegira?

- Denera, pertsonako eta urteko sortzen den hondakinen 413,3 kiloetatik, gaika biltzen dira (bereizita: beira, papera/kartoia, ontziak, pilak, arropa, olioia....) 146,8 kilo; hau da, **% 35,5²**.
- Gainerako % 64,5 (hau da, pertsonako eta urteko 266,5 kilo edo pertsonako eta eguneko 0,73 kilo) zabortegian uzten da balioztatu gabe.



URTEAN SORTUTAKO ZABORRA: 2000-2011 GENERACION ANUAL DE RESIDUOS: 2000-2011


EVOLUCION DE LA GENERACION DE RESIDUOS URBANOS EN LA MANCOMUNIDAD SASIETA EN EL PERIODO 2000-2011 (kg/año)

Año	Vertido anual de RU (kg/año)	Recogida Selectiva anual de RU (kg/año)	Generación anual de RU (kg/año)	Generación anual de RU per capita (kg/hab/año)	Generación diaria de RU per capita (kg/hab/día)
2000	23.224.760	5.274.078	28.498.838	436,5	1,196
2001	23.186.244	5.197.290	28.383.534	435,3	1,193
2002	24.003.530	5.369.971	29.373.501	449,2	1,231
2003	23.877.000	6.057.274	29.934.274	457,7	1,254
2004	19.372.560	7.688.689	27.061.249	413,4	1,133
2005	19.700.009	7.946.936	27.646.945	419,9	1,151
2006	20.263.860	8.479.829	28.743.689	433,4	1,187
2007	19.569.900	9.080.682	28.650.582	426,8	1,169
2008	19.817.640	9.434.503	29.252.143	426,0	1,167
2009	19.188.720	9.363.580	28.552.300	412,7	1,131
2010	19.487.020	9.363.580	28.850.600	415,5	1,138
2011	18.553.760	10.215.002	28.768.762	413,3	1,132

- Sortutakotik, gaika bildu diren hondakinen portzentajeak gora egin du zabortegian uzten diren hondakinekin alderatuta baina gaikako bilketak ez du % 35,5eko muga gainditu.

² Datu horietan enpresetan sortutako hondakinak ere sartzen dira. Beraz, etxebizitzetan sortutako hondakinen gaikako bilketaren portzentajea bakarrik aztertu nahi izanez gero, portzentaje hori zertxobait txikiagoa izango da, % 31-32 inguru.


EVOLUCION DEL VERTIDO Y DE LA RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS URBANOS EN LA MANCOMUNIDAD EN EL PERIODO 2000-2011 (kg/año)



Zatiki nagusiei dagokienez (beira, papera/kartoia eta ontziak), zeintzuk dira datuak eta zein izan da bilakaera?³

- **Beira:** 2011. urtean, biztanleko eta urteko 31,4 kilo bildu ziren. Horrek, gutxi gorabehera, % 80-85ean jartzen du birziklatutakoaren portzentajea.
- **Papera/kartoia** (edukiontzi urdinean, dendetan eta garbigunean jasotakoa): 2011. urtean, biztanleko eta urteko 49,8 kilo bildu ziren. Portzentaje baxuena 2001ean izan zen, 43,5 kilorekin eta portzentaje altuena 2006an, 56,8 kilorekin.
- **Ontziak:** Ontzien gaikako bilketaren bolumenek igoera esponentziala erakusten dute. Zatiki honetan, krisia izan arren, gora doa ontzien sorrera.

EVOLUCION DE LA RECOGIDA PER CAPITA DE ENVASES LIGEROS EN LA MANCOMUNIDAD SASIETA EN EL PERIODO 2000-2011 (kg/hab/año)



³ Gainerako zatikien zehetasuna Iñaki Erauskinek egin duen aurkezpenean jaso da.

Zein egoeran dago zabortegia?

- Gaur egun "Sasieta" zabortegiak urteko ia 84.000 tona hondakin jasotzen du. Baina hondakin horiek ez datoz Sasieta mankomunitateko udalerrietatik bakarrik eta beste eskualdetako hondakinak ere jasotzen dira: Debagoiena, Tolosaldea, San Marcos edo Txingudi. Era berean, erabiltzaile pribatuek sortutakoak ere sartzen dira edo hondakin-uren araztegietatik datozenak...



CANTIDAD DE RESIDUOS VERTIDOS EN EL VERTEDERO SASIETA EN EL EJERCICIO 2011

Residuos urbanos procedentes de mancomunidades

Procedencia	Ton/año
Mancomunidad Sasieta	18.554
Mancomunidad de Debagoiena	16.384
Mancomunidad de Tolosaldea	18.193
Mancomunidad de San Marcos	13.466
Mancomunidad de Txingudi	10.706
Total	77.303

Residuos asimilables a urbanos aportados por usuarios privados y lodos de EDAR

Procedencia	Ton/año
Residuos de origen agroalimentario, cárnico, mataderos, grandes superficies etc. transportados al vertedero por USUARIOS PRIVADOS	1.329
Lodos de EDAR	4.224
Total	5.552

Residuos de construcción (escombros) de garbigunes

Procedencia	Ton/año
Escombros de los garbigunes de Urretxu y Beasain	889

TOTAL VERTIDO 83.743

- Gainera, Mankomunitatetik "kanpo" datozen hondakin horien sarrerak diru-iturri dira eta, horri esker, zaborraren egungo udal tasak mantentzen dira (Gipuzkoatik tasa merkeenak dira hemengoak). Beste hitzetan esanda, "aparteko" diru-sarrera horiek izango ez bagenitu, Mankomunitatearen berezko diru-sarrerekin (udalerrien diru-ekarpenak eta bestelako subentzioak...) hondakinak biltzeko kostuari egingo genioke aurre baina ez haiek zabortegian botatzeko kostuari.
- Botatze-erritmo hori mantenduz gero, 3 urte barru zabortegia bete egingo dela aurreikusi da.

Iñakiren azalpen zehatzaren ondoren, taldeak zalantzak, iruzkinak,... egiteko aukera izan du. Segidan, horietako batzuei emandako erantzunak jaso ditugu:

Galderak, taldearen iruzkinak...



- Zein da hondakinak biltzeaz arduratzen den enpresa?

Iñakiren erantzuna: Sasieta aldi baterako enpresa-elkartea. Elkarte horretan Sukia eta FCC daude eta bilketa garrantzitsuenak egiteko ardura dute (hondarrak, ontziak, papera eta kartoia). Beste enpresa batzuk bestelakoak jasotzen dituzte (arropa, olio,....).

- Ontzien edukiontzi horian, edozein plastiko-mota utzi daiteke eta horiek guztiak birziklatzen dira?

Iñakiren erantzuna: Ez. Edukiontzi horian puntu berdea daramaten plastikozko ontziak bakarrik utzi beharko genituzke. Puntu berde horrek produktua egin duenak birziklatzearen kostua ordaintzeko kanona ordaindu duela adierazten du. Adibidez, BIC boligrafo normal bat zabor-poltsara joango litzateke eta ez edukiontzi horira.

- Beiraren kasuan, beste lurralde batzuetan kolore desberdineko beira jasotzeko edukiontzi desberdinak daude. Zergatik?

Iñakiren erantzuna: Herrialde bakoitzean dauden ohituren edo kontsumo-tipologiaren arabera dago hori. Hemen gehien kontsumitzen den beira berdea da, kolore desberdineko beirak nahastetik eta tratatuzetik sortzen dena. Beste herrialde batzuetan, beste koloretako beirak kontsumitzen direnetan, bereiztea erabaki dute, ondoren beira zuria, marroia,... egiteko.

- Zein izan daiteke sortzen dugunaren heren bat bakarrik birziklatzea lortzearen arrazoia? Badirudi muga gaindiezin bat dagoela...

Iñakiren erantzuna: Oro har, biztanleen herenak birziklatzen duela eta ondo birziklatzen duela esan genezake. Beste heren batek "gutxi gorabehera" edo okerrago/hobeto birziklatzen du baina bultzada bat behar du "birziklatzaile" ona izateko. Aldiz, beste heren batek ez du birziklatzen (arrazoi desberdinegatik) eta, ez birziklatzeko aukera baldin badu, birziklatu gabe jarraituko du.

- Sasieta mankomunitateak onartzen al du amiantoa?

Iñakiren erantzuna: Ez, baina norbait hondakin horrekin hurbiltzen bada, Mutiloako zabortege pribatura bidaltzen dugu.

Datuak alderatu eta informazioa jaso ondoren, Foroak garbi du **zeintzuk diren hondakinen alorrean aurrean ditugun 2 erronka nagusiak**; honako hauek:

- Lehenik eta behin, **hondakinen sorrera murriztea**.
- Ondoren, sortutakotik **ahalik eta gehien birziklatzea**.



Nola egin dezakegu? Zein urrats eman ditzakegu? Gure tailerlean Iñaki Erauskin dagoela aprobetxatuz, Sasieta mankomunitateak bi erronka horien aurrean 2012. urtean zehar garatuko dituen ekintzak eta ekimenak zeintzuk diren ezagutu nahi izan dugu. Honakoak dira:

Sasieta mankomunitateak 2012rako aurreikusi dituen ekintzak

- Sasieta mankomunitatea osatzen duten udalerrietan gaika biltzeko sistema alternatiboa ezartzeko bideragarritasun-azterketa egitea. Legazpiren kasuan, udalerrian atez ateko sistema nola ezar daitekeen aztertuko da, herritarrekin alderatu behar diren gaiak,...
- Norberak konpost egitea bultzatzeko plana.
- Hondakinei aurrea hartzeko programa idaztea.
- "Hondakinak bereizteko gida" eta "Hiztegia" egitea.
- Kanpaina bereziak egitea, hala nola:
 - Hondakin zehatzak sortzen dutenekin: elkarteak, bizilagunen atariak,...
 - Ikastetxeei zuzendutako kanpaina, hondakinen sorrera gutxitzeko helburuarekin.
 - Haurtzaindegietan pixoihalak berrerabiltzeko esperientziak.
 - Zerbait antolatzen denean edalontzi eta ontzi berrerabilgarriak erabiltzea sustatzea.
 - Bigarren eskuko azoka antolatzea.
 - Buzoietan jartzeko "Propagandarik ez" eranskailuak banatzea...
- Hondakinak gutxitzeko gida egitea.
- Zonaldeko 3 garbiguneetan "Berrerabilgunea" izeneko guneak egokitzea (oraindik berrerabil daitezkeen gauzak uzteko-hartzeko tokia: tresna elektrikoak,...).

Eta tailerra egiteko genuen denborak ez digu gehiagorako eman!

Hurrengo tailerlean, gai honekin jarraituko dugu...

Denboraz kanpo, datorren martxoaren 22an egingo den hurrengo tailerlean hondakinen gaia lantzen jarraitzera animatu dugu taldea.

Sortzen dugun zaborra murriztea eta ahalik eta gehien balioztatzea dira gure bi erronka nagusiak eta hori lortzeko aukera eskaintzen digu Agenda 21eko Foroak; beraz, aurrera egiteko zain izango gaituzue!

Bitartean, izan ongi!
Eta **eskerrik asko** bidean lagun izateagatik!